



2014ko martxoaz geroztik –aldizkari honen aurreko zenbakia orduan itxi zen– urtearen amaiera arte, foru-erakundeek zerga-alorrean garatu duten arau-jarduerak ez du izan, oro har, aldaketa handiei ekiteko asmorik. Aitzitik, espero zitekeen moduan, xede nagusia izan da zergen foru-sistema garatzea, eta 2013ko amaieran eta 2014ko hasieran gertatutako bi aldaketa garrantzitsu hauen arabera egokitzea: alde batetik, zuzeneko zerga nagusien erreforma (PFEZa, sozietate-zerga, eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga), lurralde historiko bakoitzeko Batzar Nagusiek onetsita; eta bestetik, 2014ko urtarrilaren 16ko Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren bileran zerga-figura berri batzuei buruz Estatuaren eta Euskadiren artean egindako hitzarmena, gero apirilaren 21eko 7/2014 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak aldatzen duenak, berretsi zuena.

Horrenbestez, 2014an, foru-ogasunek zenbait araudi berrikusteko eta egokitzeko lan handia egin behar izan dute, berriki onetsitako zuzeneko zergak erregulatuko dituzten arauak behar bezala garatze aldera, beste araudi batzuk onestea helburu hartuta. Zehazki, foru-aldundiek Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organoan aurkeztu dituzte, urtean zehar, PFEZaren eta sozietate-zergaren erregelamenduak onesteko foru-dekretuen proiektuak, eta gero, hein batean behintzat, onetsi eta argitaratu dira. Horren berri ematen da

La actividad normativa tributaria desarrollada por las instituciones forales desde marzo de 2014 – fecha de cierre del anterior número de esta revista– hasta el final del año no se ha dirigido en líneas generales a acometer cambios de gran calado, sino que, como cabía esperar, se ha orientado fundamentalmente al desarrollo y la adaptación del sistema tributario foral a los dos importantes cambios que se produjeron a finales de 2013 y principios de 2014: por un lado la reforma de los principales impuestos directos, el IRPF, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones (ISD) que aprobaron las respectivas Juntas Generales de los Territorios Históricos y, por otro, la concertación de una serie de nuevas figuras tributarias acordada entre el Estado y el País Vasco en reunión de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 16 de enero de 2014 y refrendada posteriormente mediante la Ley 7/2014, de 21 de abril, que modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, que aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En consecuencia, durante 2014 las haciendas forales han tenido que afrontar una intensa labor de revisión y adaptación de diversos reglamentos, para aprobar otros que desarrollen convenientemente a nivel reglamentario las normas reguladoras de los impuestos directos recientemente aprobadas. En particular, las Diputaciones Forales han ido presentando en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi a lo largo del año los respectivos proyectos de decreto foral por los que se aprueban el Reglamento del IRPF y el del

"Zergak gaur egun" atalean, bai eta 2014ko martxotik azarora bitartean onetsitako xedapenen bidez amaitu diren zergen alorreko araugintzako gainerako foru-jardueren berri ere. Halaber, oraindik orain onetsitako PFEZaren erregelamenduak dakartzan berrikuntzak dira Zergak aldizkariaren zenbaki honetan argitaratutako hiru kolaborazioetako baten gai nagusia.

2014an garatu diren araugintzako foru-jardueren baldintzatzaile gisa adierazitako bigarren faktoreari dagokionez –zerga berrien hitzartzea arautze aldera Kontzertu Ekonomikoan egindako aldaketak–, lehen aipatutako 7/2014 Legea onetsi ostean, zergen alorreko arau-multzoa egokitu behar izan da, zerga berri hauei dagozkien zenbait mailatako xedapenak onestearen bidez: joko-jardueren gaineko zerga berria, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga, berotegi-efektua duten gas fluoratuen gaineko zerga, ekoizpenaren gaineko eta erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegitratzearen gaineko zerga berriak, eta loteria eta apustu batzuen sariaren gaineko zerga. Xedapen horien guztien berri laburrak edo iruzkinak jasota daude, halaber, "Zergak gaur egun" atalean.

Bestalde, Estatuko Administrazioa gauzatzen ari da, pixkanaka, aspaldi iragarritako zerga-erreforma, eta azaroaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren erreformaren lau ardatzak osatzen dituzten legeetako hiru: PFEZa eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga aldatzen dituen legea; sozietate-zergak arautzen dituen 26/2014 lege berria; eta BEZa, zerga bereziak eta ingurumen-zergak aldatzen dituen legea. Oraindik izapidetu gabe dago Zergen Lege Orokorren erreforma onetsiko duen legea. Erreforma horrek, partzialki bada ere, zuzeneko eta berehalako eragina du foru-aldundien zerga-sisteman. Zehazki, Euskadiko erakunde eskudunek ahalmen

Impuesto sobre Sociedades, que posteriormente ya han sido al menos en parte aprobados y publicados. De ello, y del resto de la actividad normativa tributaria foral que ha concluido con la aprobación de las correspondientes disposiciones entre marzo y noviembre de 2014 se da cuenta en la sección de "Actualidad Fiscal". Asimismo, las novedades del Reglamento del IRPF recientemente aprobado son el tema central de una de las tres colaboraciones que se incluyen en este número de Zergak.

Respecto al segundo factor que hemos señalado como condicionante de la actividad normativa foral desarrollada a lo largo de 2014 -las modificaciones en el Concierto Económico para regular la concertación de los nuevos impuestos- tras la aprobación de la Ley 7/2014 a la que hemos hecho referencia se ha requerido la adecuación del cuerpo normativo tributario mediante la aprobación de diversas disposiciones de diferentes rangos que afectan a cada uno de los nuevos impuestos: al nuevo Impuesto sobre Actividades de Juego, al Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, al Impuesto sobre los Depósitos en la Entidades de Crédito, al Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero, a los nuevos Impuestos sobre la Producción y sobre el almacenamiento del combustible nuclear gastado y residuos radiactivos y al gravamen sobre los premios de determinadas loterías y apuestas. Todas esas disposiciones son igualmente objeto de reseña o comentario en la sección de "Actualidad Fiscal".

Por su parte, la Administración del Estado ha ido concretando su reforma tributaria largamente anunciada y el 28 de noviembre se publicaron en el BOE tres de las cuatro leyes principales sobre las que pivota la reforma: la Ley que modifica IRPF e IRNR, la nueva Ley 26/2014 del Impuesto sobre Sociedades y la Ley que modifica el IVA, los Impuestos Especiales y los tributos medioambientales, quedando pendiente de tramitación la Ley que aprobará la reforma de la Ley General Tributaria. Esta reforma, aunque de manera parcial, tiene una incidencia directa e inmediata en el sistema tributario foral, en particular respecto a aquellos aspectos de los impuestos concertados

eza dela-eta arautu ezin dituzten zerga hitzartuen zenbait alderditan; beraz, aintzat hartu eta foru-araudian aplikatu beharko dira. Aipatutako lehenengo bi lege horiek, PFEZarenak eta sozietate-zergarenak, euskal zerga-sistemaren alderdi zehatz batzuetan soilik izango dute eragina, printzipioz, baina hirugarrena, BEZa eta zerga bereziak aldatzen dituena, araubide komuneko zerga hitzartuei buruzkoa denez, oro har aplikatu beharko dute foru-ogasunek.

Gainontzean, "Zergak gaur egun" atalean zehatz-mehatz adierazita dago foru-erakundeez 2014ko apiriletik azarora bitartean zergen arloan izan duten araugintza-jarduera. Halaber, foru-aldundietako zerga-araudiaren edo zerga-politikaren zerbitzuek gaurkotatunagatik edo esanahi bereziagatik nabarmendu dituzten xedapen batzuen iruzkina ere egin dugu.

Euskadik Bruselan duen ordezkarietako langileek Europar Batasuneko zergen arloko berriei buruz egin duten kronikak 2014ko martxotik urrira bitartean zergen inguruan gertatutako gorabehera esanguratsuenen berri ematen du, eta bederatzi atal handitan dago egituratuta: i) sarrera, ii) aurrezkiek gainerako zergak, iii) sozietateen gainerako zergak, iv) BEZa, v) transakzio finantzarioen gainerako zerga, vi) zerga bereziak, vii) lankidetzak, viii) prozedurak, eta azkenik, ix) txostenei eta argitalpenei buruzko atala.

Atariko atalean balantze orokor bat egiten du, politika fiskalaren ikuspegitik, urtearen lehenengo seihilekoan Greziak egikaritutako presidentetzari buruz; halaber, laburbiltzen du bigarren seihilekoan, Italia presidente dela, egindako politika fiskalaren programa.

Aurrezkiek gainerako zergei dagokienez, berresten da 2014/48/EB Zuzentaraua, 2003/48/EE Zuzentaraua erreformatzen duena, aintzat hartuko dela, interesen ordainketa gisa eskuratutako aurrezki-errendimenduen fiskalitatearen alorrean, eta gai horretan Europako beste estatu batzuekin (Suitza, Liechtenstein,

en que las instituciones competentes del País Vasco carecen de capacidad normativa, y que por tanto será preceptivo trasponer y aplicar a la normativa foral. Así, si bien las dos primeras leyes relacionadas anteriormente, la del IRPF y la del Impuesto sobre Sociedades afectarán en principio sólo de manera puntual a algunos aspectos sistema tributario vasco, la tercera de ellas, la que modifica IVA e Impuestos Especiales, al referirse a impuestos concertados de normativa común, habrá de aplicarse con carácter general por las Haciendas Forales.

Por lo demás, la actividad normativa de las instituciones forales en materia tributaria entre abril y noviembre de 2014 se relaciona de forma exhaustiva en la sección de "Actualidad Fiscal", junto con el comentario de una selección de disposiciones que los Servicios de Normativa Tributaria o de Política Fiscal de las Diputaciones Forales han destacado por su actualidad o especial significación.

La crónica de la actualidad fiscal en la Unión Europea que elabora el personal de la Delegación de Euskadi en Bruselas da cuenta de lo más significativo en materia de fiscalidad acontecido entre los meses de marzo y octubre de 2014, estructurándose en nueve grandes apartados: i) introducción, ii) fiscalidad del ahorro, iii) fiscalidad de las sociedades, iv) el IVA, v) el Impuesto sobre las Transacciones Financieras, vi) los Impuestos Especiales, vii) cooperación, viii) procedimientos y un último apartado ix) sobre informes y publicaciones.

El aparatado introductorio hace un balance general, desde la óptica de la política fiscal, de la presidencia griega ejercida durante el primer semestre del año y resume asimismo el programa de política fiscal de la presidencia italiana del segundo semestre.

En cuanto a la fiscalidad del ahorro se confirma la adopción de la Directiva 2014/48/UE por la que se reforma la Directiva 2003/48/CE en materia de fiscalidad de los rendimientos del ahorro en forma de pago de intereses y se informa de la situación de las negociaciones en esta misma materia con

Monako, Andorra eta San Marino) egindako negoziazioen egoerari buruzko informazioa ematen dugu.

Sozietateen fiskalitatearen eremuan, lau gai desberdinei buruzko informazioa ematen dugu: i) ECOFINeko zuzeneko fiskalitateari buruzko lantaldeak –Euskadik ordezkari du bertan, Estatuko ordezkari berruak– 2014ko apiriletik urrira bitartean egindako bileretan emandako urratsak, Kontseiluak sozietate-zergaren oinarri finkatu komunari buruz egindako zuzentarau-proposamenari dagokionez (BICCIS), ii) Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan diharduten jatorrizko sozietateei eta filialeei aplikatu beharreko zerga-araubide erkideari buruzko 2011/96/EB Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren zuzentarau-proposamen berria, Batzordeak 2013ko azaroaren 25ean aurkeztua, eta Batzordeak ez-ezarpen bikoitza saihesteaz duen kezkari erantzuten diona (zerga-oinarriaren higadura eta etekinen transferentzia) dela-eta sortutako azken gorabeherak, iii) estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean egindako interes eta kanonen ordainketei aplikatzeko zerga-araubide komun bati buruz Kontseiluak egindako zuzentarau-proposamena, eta iv) enpresen fiskalitateari buruz ereduak kodearen lantaldeari egindako lan eta enkarguak.

BEZari dagokionez, EBko fiskalitateari buruzko txostenaren ardatza zergaren araubide berria da. Izan ere, 2015etik aurrera, azken kontsumitzaileei emandako telekomunikazio-, irratihedapen- eta telebista-zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoz guztiak hartzailearen egoitzan kokatuko dira. Araudian egindako aldaketan azalpen xehatua erantsi dugu, bai eta Europako Batzordeak auzitegiaren galdera eta erantzunen multzoa ere, BEZaren araubide berri horren benetako aplikazioa argitze aldera.

Transakzio finantzarioen gaineko zergari buruzko atalean, berriz, Tobin tasa esaten zaion zergaren funtsak gogorarazten ditugu, bai eta Batzordeak 2013ko otsailean transakzio finantzarioen gaineko zergari buruz aurkeztu zuen zuzentarau-proposamenaren aurrekariak ere. Halaber, EBko Justizia Auzitegiaren 2014ko apirilaren 30eko epaiaren

terceros países europeos: Suiza, Liechtenstein, Mónaco, Andorra y San Marino.

En el ámbito de la fiscalidad de las sociedades se informa sobre cuatro cuestiones diferenciadas: i) los avances en las reuniones del grupo de fiscalidad directa del ECOFIN -que cuentan con representación del País Vasco integrando la delegación del Estado- celebradas entre los meses de abril y octubre de 2014, en relación con la propuesta de Directiva del Consejo relativa a una base imponible consolidada común del impuesto sobre sociedades (BICCIS), ii) las novedades respecto a la propuesta de Directiva del Consejo por la que se modifica la Directiva 2011/96/UE relativa al régimen común aplicable a las sociedades matrices y filiales de Estados miembros diferentes, presentada por la Comisión el 25 de noviembre de 2013 y que responde a la preocupación de la Comisión por evitar la doble no imposición (erosión de base tributaria y transferencia de beneficios), iii) la propuesta de Directiva del Consejo relativa a un régimen fiscal común aplicable a los pagos de intereses y cánones efectuados entre sociedades asociadas de diferentes Estados miembros y la inclusión en dicha propuesta de una cláusula antiabuso y iv) los trabajos y encargos al Grupo Código de Conducta sobre la fiscalidad de las empresas.

Respecto al IVA, el Informe sobre Fiscalidad en la UE se centra en la nueva normativa del Impuesto que, a partir de 2015, localiza en sede del destinatario todos los servicios de telecomunicaciones, de radiodifusión y televisión y electrónicos prestados a consumidores finales. Se incluye una explicación detallada de los cambios introducidos en la normativa, así como una batería de preguntas y respuestas seleccionadas por la Comisión Europea para clarificar la aplicación efectiva de este nuevo régimen del IVA.

En el apartado dedicado al Impuesto sobre las Transacciones Financieras se recuerdan los fundamentos de la llamada tasa Tobin y los antecedentes de la propuesta de Directiva presentada por la Comisión en febrero de 2013 sobre el Impuesto sobre las Transacciones Financieras. Asimismo se hace eco de la Sentencia del Tribunal

berri ematen dugu. Izan ere, horren bidez ezetsi zen Erresuma Batuak eta Irlandak jarritako errekurtsioa, Kontseiluak baimendu zuelako estatu kideen multzo baten –haien artean Espainia– lankidetzeta sendotua, finantza-transakzioen gaineko zerga sartzea baimentzeko. Errekurtsioan alegatu zuten lurraldez kanpoko ondorioak eragiten zituela parte hartzen ez zuten herrialdeetan.

Zerga bereziei dagokienez, italiar presidentetzari agindutako lanaren berri ematen dugu, produktu energetikoen eta elektrizitatearen zergen eremuan, eta greziar presidentetzak egindako planteamenduak eta emandako urratsak laburbiltzen ditugu, 2003/96/EE Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren zuzentarau-proposamenari dagokionez (horren bidez energiako eta elektrizitateko produktuengaineko zergen erregimen komunitarioaberregituratzen da) eta proposamen horri buruzko eztabaida biziak sortu dira, 2011n aurkeztu zenetik.

Lankidetzaren eremuan, txostenak aztertzen duen gai nagusia da Kontseiluaren zuzentarau-proposamena –Batzordeak 2013ko ekainean aurkeztua– 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzeko, zergen arloko informazio-truke automatikoaren betebeharrari dagokionez. Eremu horretan berriki egindako lanen helburua da ELGArekin koordinatzea, mundu-mailan zerga-informazioa trukatzeko duen eredia laster ematekoa den zuzentarau-proposamenean txertatze aldera, urriaren erdialdean ECOFIN Kontseiluan akordio bat lortu ostean.

Halaber, 2014ko martxotik urrira bitarteko EBko zergei buruzko txostenak, batetik, Batzordeak egindako irizpen arrazoituak jasotzen ditu: i) Hungariari, tabakoaren produktuen merkataritza murrizten duten neurriak bertan behera utz ditzan, ii) Irlandari egindako eskaera laketontziek zerga gutxiagoko erregairik ez dutela erabiltzen bermadezan, iii) Herbehereei egindako eskaera, beste estatu kide batean edo EEEko herrialde batean (Norvegia, Liechtenstein eta Islandia) ezarritako aseguru-enpresei ordaindutako jatorri nederlanderreko dibidenduen zerga diskriminatzaileak

de Justicia de la UE de 30 de abril de 2014, desestimatoria del recurso presentado por el Reino Unido e Irlanda del Norte contra la decisión del Consejo de permitir la cooperación reforzada de un grupo de Estados miembros –entre ellos España– para introducir un impuesto sobre las transacciones financieras, en el que alegaban efectos extraterritoriales para los países no participantes.

En cuanto a los Impuestos Especiales se informa sobre el trabajo encomendado a la Presidencia italiana en el ámbito de la imposición de los productos energéticos y de la electricidad y se resumen los planteamientos y avances durante la Presidencia griega respecto a la propuesta de Directiva del Consejo que modifica la Directiva 2003/96/CE por la que se reestructura el régimen comunitario de imposición de los productos energéticos y de la electricidad, propuesta que ha sido objeto de intensos debates desde su presentación en 2011.

En el ámbito de la cooperación, el asunto central que trata el Informe es el desarrollo de la propuesta de Directiva del Consejo –presentada por la Comisión en junio de 2013– que modifica la Directiva 2011/16/UE por lo que se refiere a la obligatoriedad del intercambio automático de información en el ámbito de la fiscalidad. Los trabajos más recientes en esta área se orientan hacia la coordinación con la OCDE a efectos de incorporar su modelo de intercambio mundial de información fiscal en la propuesta de Directiva que previsiblemente se adoptará en breve, tras alcanzarse un acuerdo en el Consejo ECOFIN de mediados de octubre.

Asimismo, el informe sobre fiscalidad en la UE del periodo marzo-octubre 2014 se hace eco, por un lado, de los dictámenes motivados emitidos por la Comisión: i) petición a Hungría de que ponga fin a las medidas que restringen el comercio de los productos del tabaco, ii) instancia a Irlanda para que garantice que los barcos de recreo no usen combustible de gravamen inferior, iii) petición a los Países Bajos de que pongan fin a la imposición discriminatoria de dividendos de origen neerlandés pagados a las empresas de seguros establecidas en otros estados miembros o en un

bertan behera utz ditzaten, iv) Zipreri egindako eskaera, arau fiskalak egokitu ditzan, Kroazia EBn sartu dela aintzat hartuta, v) Frantziari eskatzen zaio kirol-ekitaldietarako sarrerei BEZa ezartzea, ikuskizunentzako berariazko zergarik ez duten kasuetan, vi) Estoniari egindako eskaera, zigarreten salmenta eta merkataritzari buruzko araudia alda dezan, eta vii) Greziari egindako eskaera formal, lurreko mugetan zergarik gabeko gasolina-zerbitzuguneei buruzko legedia alda dezan, viii) Greziari egindako eskaera, atzerriko bandera duten itsasontziei zerga diskriminatzaileak ezartzea bertan behera utz dezan, eta ix) Italiari egindako eskaera, beste estatu kide batzuetako edo EEKo irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako legatuak diskriminatzen dituen oinordetza-zergari buruzko araudia alda dezan. Bestalde, iruzkin labur batzuk egiten dira Batzordeak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean jarritako errekurtso hauei buruz: i) Frantziaren aurka, atzerriko onura publikoko erakundeentzako dohaintzei dagokienez, ii) Portugalen aurka, zigarreten zerga bereziei buruzko arauak direla-eta, iii) Erresuma Batuen aurka, erregaia markatzeari buruzko arauak ez betetzeagatik, iv) Alemaniaren aurka, EBkoak ez diren operadoreei BEZa itzultzeko arauengatik, eta v) Herbehereen aurka, ur-kirol zehatz batzuk BEZa ordaintzetik ez salbuestearen ondorioz. Orobat, EBko Justizia Auzitegiaren hiru epairi buruzko aipamen labur bat egiten da, eta estatu-laguntzei dagokienez, aipatzen da Europako Batzordeak onetsi duela zinema-produkzioei eta ikus-entzunezkoei dedukzio fiskalak ezartzeko Espainiako araubidea.

Amaitzeko, Europar Batasuneko fiskalitateari buruzko txostenaren IX. atalean zenbait argitalpen interesgarri zerrendatuta daude, eskuratzeko helbideak adierazita.

"Azterlanak eta kolaborazioak" atala hiru artikuluk osatzen dute oraingoan. Haietatik lehenengoa da "Mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei aplikatu beharreko zerga-erregimena sozietate-zergaren araudi berrian", eta Arabako Foru Aldundiko Zerga

país del EEE (Noruega, Liechtenstein e Islandia), iv) petición a Chipre de que adapte sus normas fiscales para reflejar la adhesión de Croacia a la UE, v) se insta a Francia a que sujete al IVA las entradas a acontecimientos deportivos cuando no estén sujetas al impuesto específico sobre espectáculos, vi) solicitud a Estonia de que modifique su legislación sobre la venta y comercialización de cigarrillos, vii) petición formal a Grecia de que modifique su legislación sobre las estaciones de servicio libres de impuestos en sus fronteras terrestres, viii) petición a Grecia de que abandone su imposición discriminatoria a los buques con pabellón extranjero y ix) petición a Italia de que modifique la legislación sobre el impuesto de sucesiones que discrimina los legados a organizaciones sin ánimo de lucro de otros estados miembros o el EEE. Por otra parte, son objeto de un breve comentario los siguientes recursos de la Comisión ante el Tribunal de justicia de la unión Europea: i) contra Francia en relación con las donaciones a organismos de utilidad pública extranjeros, ii) contra Portugal por sus normas sobre los impuestos especiales para los cigarrillos, iii) contra el Reino Unido por incumplimiento de las normas sobre el mercado de combustible, iv) contra Alemania por sus normas sobre devolución del IVA a los operadores de fuera de la UE y v) contra los Países Bajos por no eximir del IVA determinadas actividades de deporte acuático. Se incluye también una breve reseña de tres sentencias del Tribunal de Justicia de la UE y, en relación con las ayudas de Estado, se hace referencia a la aprobación por parte de la Comisión Europea del régimen español de deducciones fiscales para producciones cinematográficas y audiovisuales.

Por último, en el apartado IX del Informe sobre Fiscalidad en la Unión Europea se relaciona una serie de publicaciones de interés indicando las correspondientes direcciones de acceso.

La Sección de "Estudios y Colaboraciones" se compone en esta ocasión de tres artículos. El primero de ellos, bajo el título "Régimen fiscal aplicable a las microempresas, pequeñas y medianas empresas en la nueva normativa del Impuesto sobre Sociedades" tiene por autor al

Araudiaren zerbitziburua da egilea, Javier Armentia.

Lan horren xedea da mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei aplikatu beharreko zerga-erregimenaren berezitasunak azpimarratzea.

Gai horretara lehen hurbilketa egiteko baliagarriak dira sozietate-zerga arautzen duten bi foru-arau berrien zioen azalpenetan bertan erakunde horiei buruz jasotako bi erreferentzia hauek:

- Adierazi bezala, sozietate-zergari buruzko foru-arau berriak mikroenpresei arreta berezia ematen die "enpresa proiektuen ezarpena eta garapena errazteko, haien zerga-kostu zuzenak eta zeharkakoak jaitziz, haien mozkinen berrinbertsioa sustatuz, ahalmena eta tamaina handitu ahal izan dituzten, eta haien zergapetzea sinplifikatuz. Ikuspegi horretatik nabarmentzekoa da beren beregiko tratamendua ezarri dela mikroenpresentzat, hau da, 10 langile baino gutxiago eta urtean 2 milioi eurotik beherako eragiketen eta aktiboen zenbatekoa duten enpresentzat. Horrelakoentzat, foru-arauaren proposamen honetan jasotako babesak eta erraztasunak benetako inboluzioa dira".
- Bestalde, honako hau adierazten du: "arabide orokorrean sartu dira enpresa txiki eta ertainen arabide berezia...". Baina egileak zehazten du zioen azalpenean aipatzen den eransketa hori ez dela ulertu behar berezitasun fiskalen desagertze gisa; izan ere, arabide orokorrean sartzen dira, baina arau berezi batzuk dituzte. Beste modu batean esanda: mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek, arabide orokorraren barruan sistematikoki kokatuta egon arren, arau bereziak dituzte, aurreko legedian bezala, eta sozietate-zergaren arabide orokorra aplikatzen zaien erakundeetatik bereizten dira. Horrenbestez, funtsean, artikulua aipatzen dituen entitateei aplikatu

Jefe del Servicio de Normativa Tributaria de la Hacienda Foral de Álava, Javier Armentia.

Su trabajo tiene por objeto resaltar las especialidades o peculiaridades del régimen fiscal aplicable a las microempresas, pequeñas y medianas empresas.

Para una primera aproximación a la materia sirven las dos referencias a este tipo de entidades que se contienen en la propia exposición de motivos de las nuevas normas forales reguladoras del Impuesto sobre Sociedades:

- Como se indica, la nueva Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades presta una atención especial a las microempresas "para facilitar la implantación y el desarrollo de proyectos empresariales, reduciendo sus costes fiscales directos e indirectos, fomentando la reinversión de sus beneficios para el aumento de su capacidad y dimensión y simplificando su tributación. Desde esta perspectiva se puede destacar el tratamiento específico otorgado a las microempresas, entendiendo por tales aquéllas que tengan menos de 10 empleados y un volumen de operaciones y de activos inferior a 2 millones de euros anuales, para las que la simplificación y el apoyo recibido en esta Norma Foral suponen una verdadera evolución en relación a su situación anterior".
- Por otra parte se señala que "han sido incorporados al régimen general los regímenes especiales de las pequeñas y medianas empresas...". Ahora bien, precisa el autor que esta incorporación a la que hace referencia la exposición de motivos no debe ser entendida como sinónimo de eliminación de especialidades fiscales, sino como incorporación al régimen general pero disponiendo de reglas especiales. O dicho de otra forma, las microempresas, pequeñas y medianas empresas, a pesar de estar ubicadas, sistemáticamente hablando, dentro del régimen general, disfrutaban, al igual que en la legislación anterior, de normas especiales que las diferencian de las entidades

beharreko araubide berezia tokiz aldatzea baino ez da egin.

Egileak azpimarratzen du aurreko legedian enpresa txiki eta ertainek berariazko kapitulu zutela araubide berezien erregulazioaren barruan; araubide berrian berariazko kapitulu hori desagertzen da, eta enpresa horiek, mikroenpresek batera – orain sortutako figura berria –, araubide orokorrean sartzen dira, baina artikuluetan arau berezi batzuk jasota daude.

Azken finean, lehen enpresa txiki eta ertainek araubide berezia zuten, sozietate-zerga erregulatzeko arauaren kapitulu zehatz batean kokatua; orain, berriz, mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek araubide berezia dute, zergaren araubide orokorraren barruan kokatua.

Bigarren kolaborazioa Arabako Foru Ogasuneko bi teknikariek egindako lana da: Fernando Achótegui eta Esther Urruzola. Editorial honen hasieran aurreratu dugun bezala, Arabako Lurralde Historikoko PFEZaren erregelamendu berriaren berrikuntza nagusiak aztertuta dituzte.

Egileek artikulua hasteko idatzitako sarrerak argi eta garbi azaltzen digu azterlanaren xedea eta edukia:

“Berriki, hiru lurralde historikoek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arau berriak onetsi dituzte. Zehazki, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua Arabako Lurralde Historikoan, abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Foru-arau horiek sartutako berrikuntzen ondorioz, haien garapenerako erregelamenduak ere aldatzea komeni da.

a las que se les aplica el régimen general del Impuesto sobre Sociedades, de modo que básicamente sólo se ha afrontado un mero cambio de ubicación del régimen especial aplicable a las entidades a las que se refiere el artículo.

